



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/10/27

Bizkaiko Batzar Nagusiek bardintasun politikak bultzatzeko atal berezia zabaldu dabe euren webgunean

Bizkaiko Batzar Nagusiek beste bultzada bat emon deusie gizonen eta emakumeen arteko aukera bardintasunari. Bizkaiko Batzarrek, Nafarroakoaren ostean Estatu osoan bardintasun plana onetsi daben lehenengo legebatzarrek, atal berezia zabaldu dabe gaur euren webgunean (jgggbizkaia.eus), Batzarrek –Batzarretako taldeek, beharginek eta erakundeak berak– barrutik egiten daben lanaren eukiak jasoteko, bardintasunaren aldeko politikak bultzatzeko helburuz.

“BERDINTASUNA” izeneko atala “home”-tik bertatik ikusi ahal izango da, eta gaur bertan jarri da martxan, Alberto Santana historialariak, Gernikako Batzarretxean 120.000 pertsonaren bisitea jaso eban “Emakumeok Gernikako Arbolaren Aurrean” erakusketaren eukiaren gainean emondako tailerragaz. Erakusketa horretan, emakumearen nortasunaren garrantzia eta XIX. mendearen bukaeran Foruak kendu arte Euskal Herriko politikan bete eban lekuaren irudikapen berezia ikusi ahal izan da.

Hitzaldia, Emakundek, “Berdintasunari buruz hitz egiten” espazioaren bitartez bultzatzen dauen “2017 Berdintasunerako guneko” bileraren barruan sartzen da. Alberto Santana historialaria, Francisco de Mendiak XVII. mendearen hasieran margotu eban “El Besamanos” margolanean inspirau da, besteak beste, hitzaldia emoteko. Erakusketako komisarioaren berbetan, margolan hori, “Europako artean ikusi zan emakumeen lehenengo talde erretratua” izan zan.

"Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako Bizkaiko Batzar Nagusien I. Plana 2017-2020" 2017ko udan hasi zan lehen pausuk emoten, Plana sustatu eta haren jarraipena egiteko eratu dan lantaldearen bitartez. Talde hori Batzar Nagusietako langileen eta batzarkide-taldeen ordezkariak osatzen dabe. Ekimen hori erronka izan da; izan be, Espainiako estatuan Batzar Nagusiak izan dira bigarren parlamentua —Nafarroakoa izan zan lehenengoa— Bardintasun Plana abiarazoten. Plan hori ahobatez onartu zan, herri administrazioek pertsonen artean — Batzar Nagusien kasuan, langileen eta batzarkide-taldeetako kideen artean— bardintasuna bultzatzeko berariazko politikak gauzatu behar dituela ikusi eta lanari ekin eutsielako, bardintasun politiketan ikasbide izateko erakunde politiko, sozial eta ekonomikoentzako.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
27/10/2017

Las Juntas Generales de Bizkaia abren en su web un apartado específico para fomentar políticas de igualdad

Las Juntas Generales de Bizkaia han dado un nuevo impulso a la igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres. La Cámara vizcaína, el segundo parlamento del Estado en aprobar un plan de igualdad tras Navarra, ha abierto hoy en su página web (jjggbizkaia.eus) un apartado específico para incluir contenidos con todo el trabajo que a nivel interno está desarrollado la Cámara vizcaína –tanto grupos junteros, personal y la propia institución- con el objetivo de fomentar e impulsar políticas de igualdad.

El apartado denominado “Berdintasuna” es visible desde la propia “home” y ha arrancado precisamente hoy con un taller a cargo del historiador Alberto Santana en relación al contenido de la exposición “Emakumeok Gernikako Arbolaren Aurrean” que fue vista en la Casa de Juntas de Gernika por más de 120.000 personas. En ella, se descubría la importancia de la identidad femenina y la singular representación de la mujer en la política vasca hasta la abolición de los Fueros a finales del siglo XIX.

La conferencia forma parte de una reunión interna dentro del “Foro para la Igualdad 2017” que promueve Emakunde mediante el espacio “Conversando sobre la igualdad”. El historiador Alberto Santana ha impartido una charla inspirándose, entre otras cosas, en “El Besamanos”, el cuadro que pintó Francisco de Mendieta a principios del siglo XVII y que se convirtió según el comisario de la muestra “en el primer retrato colectivo de mujeres del arte europeo”.

El "I Plan de Igualdad de Mujeres y Hombres de las Juntas Generales de Bizkaia (2017-2020)" echó a andar en el verano de 2017 con la constitución de un equipo de impulso y seguimiento formado por representantes de los grupos junteros y personal de la Cámara vizcaína. La iniciativa ha supuesto todo un reto dado que el Parlamento de Bizkaia es el segundo órgano legislativo del Estado español, tras el de Navarra, en contar con un Plan de Igualdad. Este plan fue acordado por unanimidad y es fruto del convencimiento de que las administraciones públicas deben incorporar políticas específicas dirigidas a favorecer la igualdad de sus personas, en este caso, plantilla y grupos junteros, y convertirse así, en referente de políticas de igualdad para el resto de organizaciones políticas, sociales y económicas.